



# Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

*bizi ezazu*

# MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 35  
Urtea/Año 2017  
Martxoa/Marzo

## HILEKO JARDUERAK

**Martxoaren 5, 12, 19 eta 26ean. 19:30ean:** "Andrés Isasi" Musika Eskolako jazz-taldea eskainitako Jam Session-ak. Areetako "El Comercio" tabernan.

**Martxoaren 9an. 18:00ean:** Luminita Duca irakaslearen piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Martxoaren 10ean. 18:00etan:** Pía Rojas eta Marisa Sanz irakasleen piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Martxoaren 16an. 19:00etan:** Rafael Burguera irakaslearen akordeoi-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Martxoaren 17an.** Hari-tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udalerriko ikastetxeentzat eta 18:00etan familientzat. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Martxoaren 17an. 18:30ean:** Hitzaldi musikalak José María Bretos Linazaren eskutik. "Mendebaldeko musika-tresnen eboluzio historikoa. Hari punteatua eta teklatura". "Andrés Isasi" Musika Eskolako Liburutegian. Sarrera: 3 €. Leku mugatua.

**Martxoaren 22an. 19:00etan:** Biolin eta biola-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Martxoaren 23an. 18:30etan:** Juan Manuel Pérez irakaslearen txistu-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Martxoaren 24an. 18:30ean:** Hitzaldi musikalak José María Bretos Linazaren eskutik. "Mendebaldeko musika-tresnen eboluzio historikoa. Hari-arkua". "Andrés Isasi" Musika Eskolako Liburutegian. Sarrera: 3 €. Leku mugatua.

**Martxoaren 28an. 19:00etan:** Ainhoa Gutiérrez irakaslearen perkusio-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Martxoaren 30ean. 17:30etan:** Juan Carlos López irakaslearen klarinete-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Martxoaren 31n.** Perkusio-tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udalerriko ikastetxeentzat eta 18:00etan familientzat. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Martxoaren 31n. 18:30ean:** Hitzaldi musikalak José María Bretos Linazaren eskutik. "Mendebaldeko musika-tresnen eboluzio historikoa. Haize eta perkusioa". "Andrés Isasi" Musika Eskolako Liburutegian. Sarrera: 3 €. Leku mugatua.

## BA AL ZENEKIEN?

*EEBBetako Kalifornia eta Arizonako unibertsitateetan orain zenbait urte egin eta Science aldizkarian argitaratu zen ikerketa baten arabera, eskumako belarriak hitzak hobeto biltzen dituen bitartean, ezkerrekoak erantzun hobea du musikarekin. Jaiotzen garenetik, belarria egituratuta dago soinu desberdinak bereizteko eta burmuinaren alde egokira bidaltzeko.*

## 2017-2018 IKASTURTERAKO MATRIKULA

*Martxoaren amaiera-aldean zabalduko dugu epea ikasle ofizialek datorren ikasturterako matrikula bete dezazuen. Online ere egin ahal izateko lanean ari gara. Bidaliko dizkizuegun oharren adi egon, bertan azalduko baitizuegu non eta nola bete eskaera eta bestelako informazio garrantzitsua: Bizi proiektua, ikasturtearen prezioa, etab.*

*Datorren urtean zuen ikasketak gurekin jarraitzeko prozesurik garrantzitsuen da. Arreta handiz egin.*

## HITZALDIK LIBURUTEGIAN: "MENDEBALDEKO MUSIKA-TRESNEN EBOLUZIO HISTORIKOA"

Martxoaren 17tik apirilaren 7ra arte, hirugarren urtez, "Hitzaldi musikalak Liburutegian" zikloa izango dugu; aurtengo gaia, "Mendebaldeko musika-tresnen eboluzio historikoa" izango da; Musikene-Euskal Herriko Goi-mailako Musika-zentroan Musikaren Akustika eta Organologia-irakaslea den José María Bretos Linaza algortarrak emandako lau dibulgaziozko hitzaldi izango dira. Aurrekoetan, etorritakoak oso gustura eta pozik azaldu ziren. Aurtengo hitzaldiek, entzuleei Mendebaldeko musika-tresnak sakonago ezagutzera ematea dute helburu nagusia.

Lehenengo saioa martxoaren 17an izango da eta hitzaldiaren izenburua "Hari punteatua eta teklatura" izango da.

Martxoaren 24an "Hari-arkua" izango du izenburu hitzaldiak.

Hirugarren saioa, martxoaren 31n, honetaz arduratuko da: "Haize eta perkusioa".

Zikloa apirilaren 7an amaituko da, "Kantua" gaiarekin.

Hitzaldiak ostiraletan izango dira (martxoaren 17, 24 eta 31n eta apirilaren 7an) arratsaldeko 6:30ean eta sarreraren salneurria 3€koa izango da saio bakoitzeko.

Ez itzazu gal. Liburutegian direnez, 50 pertsonentzako lekua besterik ez dago.

## Hileko egutegia

Martxoa

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    |    | 1  | 2  | 3  | 4  | 5  |
| 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |    |    |

■ Jai-egunak  
■ Jarduerak eskolan  
■ Jarduerak jai-egunetan